

Ikusi nuenean

Ikusi nuenean... kantua entzun al dugu inoiz?
Kopla zahar horiei tiraka, berriak sortuko ditugu.
Zaharberritzeko edo *tuneatzeko* prest?

Zertan trebatuko gara...

Imitazioaren bidez, koplaren barruan puntu bat sortuko dugu.
Konparazioak egiten ariko gara, gainera.

... eta zer ikasiko dugu?

Puntua bi lerrotan idazten.

Plazara!

Erakusketan jartzeko gure artelana osa genezake,
kopla zahar eta berriekin horma-irudia konposatuz:
collage ederra egin liteke, irudietan gorputz atalak
eta konparazio elementuak nahasiz.





Ikusi nuenean

Abes ditzagun kopla herrikoiak!

Puntuak nahaspilatuta ageri zaizkigu, ordea:

errimatzen duen esaldia topatzea izango da jolasa.

Ezkerreko zutabean, kopla bakoitzaren lehen puntua zuzen idatzita dugu.

Bigarren puntua zein duen, eskuineko zutabean **aurkitu** beharko dugu eta bertara ekarri, **bi lerrotan** idatziz.

Ikusi nuenean
zure ile **latza**
iruditu zitzaidan
sorginen erratza.

1 Ikusi nuenean
nik zure **sudurra**

.....
.....

2 Ikusi nuenean
zure **belarria**

.....
.....

3 Ikusi nuenean
nik zure **kokotsa**

.....
.....

4 Ikusi nuenean
nik zure **besoa**

.....
.....

■ iruditu zitzaidan gaztaina **morkotsa**.

■ iruditu zitzaidan azaren **orria**.

■ iruditu zitzaidan Irati **basoa**.

■ iruditu zitzaidan gerezi **handia**.

■ iruditu zitzaidan lukainka **muturra**.

5 Ikusi nuenean
nik zure **begia**

.....
.....

Zertan laguntzen du puntua bi lerrotan idazteak?

Puntua esaldi bat da eta **bi lerrotan** idatzi ohi da. Hala idazteak, **abesterakoan**, asko laguntzen digu: kantuan ari garela, doinuan **hitzak bere lekuan** sartzen ari garen ala ez jakiteko. Egin dezagun proba!

Puntu hau bi modutan idatzita dago: lerro bakarrean eta bi lerrotan. Abestu dezagun. Zein zaizu errazena?

- 1 Pozik bizi naiz eta hilko ez banintz **hobe**
- 2 Pozik bizi naiz eta hilko ez banintz **hobe**



Nola jakin bi lerroak non eten

Doinuak esango digu. Abesten ari garela, puntuaren erdian, doinuak isilune labur bat izaten du, **geldialditxo** bat, arnasa hartzeko ere: **etena** esaten zaio eta hortxe amaitzen da lehen lerroa! Bigarren lerroa **oinarekin** amaitzen da.

Erritmo kontua

Bertsoari erritmoa bi ezaugarri ematen diote: **Errimak** eta doinuan dauden **etenek** edo isilune laburrek.



... iruditu zitzaidan...

Maddalen Arzallus Antia

Ikusi nuenean... abestu dugu orain arte.
Baina ikusi soilik ez: entzun, usaindu, ukitu eta dastatu ere egin
genezake, bost zentzumenen bidez!

Doinua: Txankete **Kopla txikia**

- | | |
|--|--|
| 1 Ikusi nuenean
zure ipurdia
iruditu zitzaidan
Kongito erdia . | 5 Usaindu nuenean
zure besapea
iruditu zitzaidan
sumo- konbatea . |
| 2 Adu nuenean
nik zure puzkarra
iruditu zitzaidan
bonba nuklearra . | 6 Dastatu nuenean
nik zure mingaina
iruditu zitzaidan
txuleta bikaina . |
| 3 Laztandu nuenean
zure hankazpia
iruditu zitzaidan
fregona bustia . | 7 Sumatu nuenean
zure begirada
iruditu zitzaidan
zaldi- ostikada . |
| 4 Ukitu nuenean
nik zure zilborra
iruditu zitzaidan
Everest tontorra . | 8 Sentitu dudanean
nik zure bihotza
zergatik gorritu naiz?
Zergatik naiz lotsa ? |



Gure txanda! **Karta jokoa** hartuta,
kopla berriak sortuko dizkiegu
zentzumenei.
Lehen puntua eta oina emango zaigu,
konparazioa sor dezagun.

Jolasa

Errimak ikusten

Adi begi-belarriak!
Ezkerreko irudi bakoitzari **errimatzen duen bikotea** topatu beharko diogu eskuineko zerrendan.



.....



.....



.....



.....



.....



.....



.....



.....



.....



.....



.....



.....



.....



.....



.....



.....



“Errimak ikusten” jolasean,
oin **bikoteak** osatu ditugu.
Orain, oin bikoteekin **esaldi errimatuak** egin
ditzakegu.
Gero, *Ikusi nuenean* doinuarekin abestuko
ditugu; esaldiak doinuan egoki sartzeko
moldaketak eginez, **puntu bihurtu**
ditzakegu, eta **koplak osatu**.